

Bada arraunik telebistako estropadetatik kanpo

Amaitzear da aurtengo arraun denboraldia. Ez soilik goi-mailako kirolarientzat, baita urte osoan arraunak astintzen jardun duten “beste” arraunlarientzat ere. Estropadek sortzen duten ikuskizunetik aldentuta, uda sasoi honetan ere izan dira, beste helburu batzuekin bada ere, lehen mailako izarren itzalpean arraunean jardun dutenak. Horren lekuko dira arraunean aurten ikasi duten 30 emakumeak; tradizioa eta aisia uztartzen dituen batel zeharkaldia; eta bost bandera irabazi dituzten beteranoak.



Miren Osa Galdona

@Mirentx_U

Zergatik ez arraunean 40 urterekin?

35 urtetik gorako 30 emakume, traineru bat, eta erronka nagusi bat: Orio-Bilbo-Orio zeharkaldia egitea lau egunetan. Desafioa bukatu eta ia bi hilabetera argi dute Ainhoa Pozok, Eider Osinaldek eta Sorkunde Lizasok: “Ez diogu inori ezer frogatu nahi izan, geure buruari salbu”. 38, 43 eta 58 urte dituzte, hurrenez hurren, eta *Zergatik ez?* egitasmoko protagonistetako hiru dira.

Lehen etapan, Orio-Bermeo bidean, izan zuten ezusteko galanta. Halakorik aurreikusita ez zegoela, itsasoa harrotu eta Getariara heltzeko lanak izan zituzten. Eguerdian Bermeon behar zuten, baina itsasoa baretu zain egon eta gaueko bederatziak aldera iritsi ziren Bermeora. Egun gorabeheratsua izan eta gero, portuan zen jende andanak eginitako harrera beroak indarberritu zituen: “Zoragarria izan zen, kaia jendez beteta, txaloka, oihuka... Batez ere, emakumeen aldetik sentitu genuen konplizitatea izan da ederra, militantzia puntua zuen”, dio Lizasok. Bermeotarrak “Aupa Orio!” oihukatzen entzuteak eta goi-mailako ligetan dauden lehia kutsuko ezinikusiak albo batera uzteak herrien arteko

elkartasuna adierazten dutela uste du Pozok. Osinaldek “ahizpatasun zintzo” horretaz ohartarazi du: “Lehiarik ez zegoelako animatu gaituzte. Gure buruarekin genuen erronka zelako”.

Hurrengo hiru etapak lasaiagoak izan ziren, nahiz eta beti kezka izan Oriora iritsiko ziren ala ez. Hiru arraunlariekin ustez, erronkaren amaiera, alegia helburua lortu izana, “inondik inora espero ez zuten eztanda” izan zen herrian. Hala azaldu du Pozok: “Enrike patroiarri [emakumezko patroiak lortzen saiatu arren ez zuten bakar bat ere lortu] aurpegia aldatu zitzaion Oriora sartzen hasi ginenean. Gu herriari bizkarra ematen gindoazen, baina berak dena ikusten zuen”. Herritarrek, lagunak eta senideek bi traineruei (30 arraunlariak bi traine-rutan iritsi ziren Orian barrena) harrera beroa, arraunlariek espero baino beroagoa, egin zieten.

Baina zergatik hasi ziren 30 emakume heldu, ia denak arraunean inoiz ibili gabeak, halako egitasmo batean? Jakina da oriotarrek joera eta gertutasun berezia dutela arraun munduarekin: estropadan bandera irabaztean herriko plaza jaietan baino beteago egotea ohi-

koa da, eta ez da kasualitatea negu gorrian nahiz uda betean herri osoa horiz apainduta egotea. “Oriotarrak izateak eragingo zuen, dudarik gabe! Baina batez ere naturarekin eta kirolarekin zerkusua zuen zerbait egin nahi genuen”. 40 urteak betetzera zihoazen oriotar batzuen ideia izan zen arraunean egitea, ez betiko bazkari bat, ezta boladan dauden maratoni jendetsu horietakoren batean korrika egitea ere. 40. urtemugaren ospakizunak berezia izan behar zuen, eta Orio ibaiaren ondoan egonik, zer hoberik arraunean egitea baino. Egitasmoan izena eman zuen gehiengoak ez zuen inoiz arraunean egiteko aukerarik izan, azken urteotako kontua baita emakumeak traineruan aritzea. *Zergatik ez* egitasmoa arraunean egiteko bizitzako abagune bakarra izan zitekeen. Orioko Arraun Elkarteari laguntza eskatu ziotenean bi baldintza jarri zituzten: gutxienez hogeit hamar emakume elkartzeko eta arraunean ikasteaz gain erronka bati heltzea. Whatsapp bidez iritsi zitzaizen gonbidapena Lizasori eta Osinalderi, askorik pentsatu gabe eman zuten baiezkua: “Nik jada 58 urte ditut, eta aukera hau opari bat izan da niretzat”, Sorkun-



EGIGUREN ARGAZKIAK

Orion 35 urtetik gorako 30 emakume elkartuz ziren arraunean ikasteko.

de Lizasok amets bat bete duela sentitzen du.

Orioko Arraun Elkartearen babesean aritu da taldea urritik uztaileira. Horrek ez du esan nahi egitura antolatua dena eskura jarri dienik. Instalazioetan eta hainbat gauzatan laguntza izan dute, baina behar ekonomikoa handia izan da denboraldi osoan. “Dirua behar genuen materiala erosteko, ontzien gasolina ordaintzeko, janarirako... Babesleak bilatzen hasi ginen”. Trainerua Eusko Jaurlaritzak utzi zien eta Orioko Arraun Elkartek klubean bertan uzteko aukera eman zien. Lizasok hala adierazi du: “Trainerua ezin duzu garajea gorde”. Eta prestakuntza fisikoa, teknikoa, itsasoratzean ondoan izango den ontzi laguntzailea... konplexutasun handiko zereginak asko. Hala, egitasmoak zuzendaritza sendoa izan du eta kide horietako bat izan da Ainhoa Pozo: “Gure helburua arraunlariok traineruan eseri orduko behar genuen guztia prest izatea zen. Horixe izan da niretzat gogorrena, egun osoan telefono mugikorra dantzan izan dut. Erronka lortuta, merezi izan duela uste dut. Bide bat ireki dugu Euskal Herrian horrelako ekimen gehiago egiteko”.

Tradizioa herriak mantendu dezan, bateletan

Batelek egiteko garrantzitsua izan dute euskal kostaldearen historian, eta zer esanik ez herri arrantzaleetan. Lanerako tresna ez ezik, garraioa ere izan dira badia bereko bi herriren arteko zubi lanak egiteko, besteak beste. Denboraren poderioz, aurrerapen teknologikoen indarrez, baina, bigarren mailan geratu dira, eta kasik aisialdirako gailutzat har daitezke gaur egun.

1992an, batelak mantendu eta sustatzeko asmoz, lau donibandarrek euskal kostaldea zeharkatu zuten, historikoki izandako balioa ahanzturan erori ez zedin. Ontziari *Teink* izena jartzea proposatu zuten batelaren artisauek, arrantzaileek atuna amuan dutenean erabiltzen duten hitza aprobetxatuz. Hala, esperientzia gustatu, taldea elkarte bilakatu eta Teink Trofeoa sortu zen.

Castro-Urdialesen hasi eta Donibane Lohizunen amaitu dute aurtengo zeharkaldia. Edonon hasita ere, amaiera beti Donibane Lohizunen dela dio Andoni Torres parte-hartzaileak. 2011n eman zuten izena lehen aldiz beste bi lagunekin batera, eta aurreko aldietan bezala,

aurtengo esperientzia ere oso aberasgarria izan dela dio: “Arraunaz gozatzeko ez ezik, jendea ezagutzeko aukera bikaina da Teink Trofeoa”.

Uztailearen 30ean hasi ziren arraunei eragiten, eta hala jardun zuten astebebezez, guztira sei etapa osatuz. Aurtengo edizioan hogeita batelek hartu dute parte; hemeretzi gizonezkoenak eta bakarra emakumezkoena. Teink Trofeoak izenez lehiaketa itxura izan dezakeen arren, Torresek uste du oinarrian beste balore batzuk dituela erronkak, eta arraun herrikoien eredutik gertuago dagoela lehiakortasunetik baino. Egunero lau edo bost orduz aritzen dira arraunean. Lehen egunero eta orain ia egunero 45 minutu erlojuarekin kontra izaten dira. Horrekin sailkapena osatzen dute antolatzaileek eta horren arabera izendatzen da irabazlea. “Hogeita bateletatik bi edo hiru aterako dira irabaztera. Gainontzekoak beste filosofian batekin goaz. Arraun profesionalarekin alderatuta, beste kontu bat da hau”.

Antolatzaileak emakume gehiagok parte hartzeko eginahalak egiten ari dira, eta oro har edonork parte hartzeko moduko ekimena dela nabarmendu du: “Jendeak pentsa dezake arraunlari ohien



Argazkian Zarauzko Arraun Elkarte Badok 13 traineruko arraunlari beteranoak.

zeharkaldia dela, eta inondik inora ez da horrela: gutxi batzuk gara arraunean ibili garenak. Bitxikeria moduan esan dezaket arraunlari ohiak baino, errugbilari ohi gehiago irteten direla". Zeharkaldia uda erdialdean izanik, entrenamenduak Aste Santu ostean hastea da ohikoa. Antolatzaileek uzten dizkiete batelak, oro har ez baita ohikoa izaten norberak bere batela edukitzea. Torresen iritziz, antzeko egitasmo gehiagok egon beharko lukete, "arrauna ez baita soilik telebistan emititzen dutena".

"Beste" goi-maila

"Hedabideek ez digute inongo protagonismorik ematen. Orokorrean uste dute edozein kiroletako beterenoen liga ondo pasatzeko baino ez dela. Eta ez da horrela. Gu irabaztera irteten gara, eta azken segundoa ere lehiatu egiten dugu". David Elustondoren hitzak dira. 55 urte ditu eta Zarauzko Arraun Elkarte Badok 13 traineruko arraunlaria da. Bigarren urtea du Arraunlari Beterenoen Elkarteak antolatutako ABE Ligan parte hartzen, eta uste orokorrari muzin eginez, beterenoen arteko arraunak herrikoitik ezer gutxi duela uste du. "Ez goi-mailako arraunlarien maila berean, baina guk ere estropada guztiak irabazteko entrenatzen dugu".

Uztailaren amaieran izan zen ABE Ligako azken estropada. Bi ontzirekin aritu da aurtengoan Badok 13ko tripulazioa: bata lehiatzen, eta bestea gon-



Teink Trofeoan, aurtengo udan, batelarien hogei taldek hartu dute parte.

bidatu gisa. Lehen ontzian aritzen da Elustondo eta erreskadan bost bandera irabazi dituztela nabarmendu du, tartean Gipuzkoako Txapelketa. Emaitzak lortzeko, ordea, itsasoan ez ezik, handik kanpo ere lan handia egin behar dela dio, baliabide ekonomikoak biltzen batik bat. "Zarauzko Arraun Elkarteak instalakuntzak uzten dizkigu, eta horri esker bertan entrenatzen dugu. Baina, gainontzeko gastu guztiak beterano taldeak ordaindu behar ditu: trainerua guk erosi genuen, astebururo 30 lagunentzat autobusa kontratatu behar dugu, janaria, materiala... Babeslerik gabe ezin goguko genuke itsasora irten".

ABE ligak baditu zenbait berezitasun, izena emateko 45 urtetik gora izatea,

adibidez. Tripulazio osoan, baina, 38 urtetik 45era arteko hiru arraunlari egon daitezke. "Arraunlaria izandakoa naiz, duela 25 urte. Behin ezkondua eta familia osatuta, duela bi urte berriro ere talde batean sartzeko aukera eskaini zidaten. Arraunak badu lotzen zaituen zerbait eta askorik pentsatu gabe, animatu egin nintzen". Nostalgia baino, lehiatzeko senak itzularazi zuen trainerura Zarauzko arraunlaria. Iazko denboraldian sailkapenaren erdialdean geratu ostean, aurtengo lau arraunlari batu zaizkie taldera. Fitxaketok arraunlari ohiak izatea garrantzitsua dela uste du Elustondok, "lehiakortasuna eta kalitatea" gehitu baitzikio ontziari. ■